

Urriaren 21etik 26ra izango da

KUDEAKETA JASANGARRIA EGITEKO KONPROMISOA ETA ZUREZKO ERAIKUNTZAREN GARRANTZIA NABARMENTZEA DIRA EUSKADIKO EGURRAREN V. ASTEAREN ARDATZAK

Baskegurrek egurraren lehenengo eraldaketaren arloko aurreneko Produktuaren Ingurumen Adierazpena aurkeztuko du urriaren 22an; gure sektorea Europa mailan aitzindaria da ziurtapen horri dagokionez

Gipuzkoako diputatu nagusiak, Markel Olanok, parte hartuko du urriaren 25ean azalera handietarako kit altzarien fabrikazioan diharduen Astigarrako Kit Line enpresan izango den ate irekien jardunaldian

“Baso osasunaren erronkak eta aurrerapausoak” izango ditugu aztergai urriaren 24an, banda marroiak kaltetutako pinudien egoera aztertzeko egingo den jardunaldi teknikoan

Zamudio, 2019ko urriaren 18an. Euskadiko basogintza-egurgintza sektorearen ardatz estrategikoetako bat jasangarritasuna da, erabat jabetzen baita beharrezkoa dela baliabideen aprobetxamendu ekonomikoa ondo uztartzea gure ingurunean nagusitzen den interes sozial eta ingurumenekoarekin. Baskegur basogintzari begira ari da lanean, basoaren kudeaketa jasangarria egitea bermatzen duten basogintzako ziurtagiriak bultzatuz, hala nola PEFC eta FSC; eta industria eraldatzaileari begira ere bai, ekoizpen prozesuek ingurumenean zer-nolako inpaktua daukaten neurtzen duten Ingurumen Adierazpenen aldeko apustua eginez.

Euskadiko egurgintzaren industriak abangoardian kokatzea lortu du halako ziurtapenei dagokienez. Lehen eraldaketaren arloko aurreneko PIA (Produktuaren Ingurumen Adierazpena) sektoriala lortu du zurezko oholarentzat, eta horretan aitzindaria da European. PIA sektorial hori datorren urriaren 22an aurkeztuko da IHOBEren egoitzan, Bilbon, eta jasangarritasunarekin eta eraikuntzarekin lotutako kluster nagusiek parte hartuko dute ekitaldi horretan. “Ingurumen ziurtagiriak, lehiakortasunerako tresna berriak basogintza-egurgintza sektorean” izenburupean egingo den topaketa Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuordeak, Elena Morenok, irekiko du; amaiera, aldiz, Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuordeak emango dio

Ekitaldi horretan bertan, produktuaren PIA jada lortu duten enpresei aitormena egingo zaie. Baskegurreko zuzendariak, Oskar Zarete, honakoa nabarmendu du: “PIAk tresna objektiboak dira, eta aukera ematen dute produktu berdinak izan arren material eta ekoizpen prozesu desberdinen bidez egin direnak alderatu eta bakoitzak zer-nolako ingurumen eragina daukan jakiteko. Gisa horretan, egurra beste material batzuk baino jasangarriagoa dela egiaztatu da, hau da, altzairua, aluminioa, hormigoia eta plastikoak baino jasangarriagoa dela”.

Produktuen ziurtagiriengatik ez ezik, basogintzako ziurtapenen arloan ere maila nazionalean erreferentea da Euskadi. Azkaratek adierazi duenez, “Baskegurrek estatuko *multisite* handiena kudeatzen du, PEFC ziurtagiria daukaten eta kudeaketa jasangarria bermatzen duten 50 enpresa baino gehiagok osatua”.

Basogintza-egurgintza sektorea ezagutzea

Egurraren Astea duela bost urte sortu zen, euskal gizarteari ere sektorearen errealitatearen berri emateko asmoz. Horrexegatik, jardunaldien lehenengo eguna ikasleei zuzenduta dago urtero, ohitzen has daitezen

zuraren erabilerarekin eta herri kulturaren izan duen garrantziarekin. Bilboko Eskolapioak ikastetxeko ikasleak astelehenean, urriaren 21ean, Itsasmuseumera joango dira, eta bertan azaldu zaie zer-nolako ahalegina egiten duen erakunde horrek ibaiertzeko arotz lanak berreskuratzeko eta itsasontzi enblematikoak zaharberritzeko. Ekimen horretan laguntzailea da Baskegur, egurrez hornitu baitu.

Astean zehar, sektoreko euskal enpresek ateak irekiko dituzte herritarrek eta ordezkari instituzionalek aukera izan dezaten beren lanaren berri izateko, baita horrek gure lurraldeen garapen ekonomikorako daukan garrantziaren berri izateko ere. Adibidez, ostiralean, urriaren 25ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak batek, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia buru dela eta Imanol Lasa Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatua ere bertan dela, Baskegurren bazkide den Astigarragako Kit Line enpresa bisitatuko du.

Zurezko eraikuntza, oraina eta geroa

Zurezko eraikuntza sustatzea Baskegurren helburu estrategikoetako bat da. Azken urteetan eraikuntzako teknikak bilakaera nabarmena izan dute, garaiera handiko proiektuak zurez eraikitzea ahalbidetzeraino, adibidez, etxe orratzak. Zurezko eraikuntzaren garrantzia nabarmendu eta ezagutarazteko, Euskadiko Egurraren Elkarteak bisita programa berezia antolatu du MUGAK Nazioarteko Arkitektura Bienalaren egitarauaren barruan, EGURTEK Zurezko Eraikuntza eta Arkitekturaren Nazioarteko Foroaren sari entzutetsuekin aitortuak izan diren obra erreferenteak ikusteko. Urriaren 25ean, Egurraren Astearekin batera, bisita bikoitza programatu da Sestaon (Bizkaia), "La casa del Arco" delakoan 47 etxebizitzaren birgaikuntza integrala ezagutzeko eta *District Heating* sistemaren bitartez biomasari emandako erabilera ezagutzeko.

Hezkuntzak ere funtsezko eginkizuna betetzen du arkitekturako profesionalen belaunaldi berriek egurraren eta berak eskaintzen dituen aukera teknikoek berri izatea lortzeko. Horregatik, Baskegurrek, Eusko Jaurlaritzarekin batera, UPV/EHUko Donostiako Arkitektura Fakultatean ematen den "Zurezko egiturak, Eraikuntza eta Diseinua" masterra abian jartzeko lanak gidatu ditu. Era berean, egurraren gaineko ezagutza sustatzen du Eraikuntzako Ingeniaritza masterrean. Egurraren Astearekin batera, urriaren 21ean, master amaierako lan onenaren saria banatuko da, Bilboko Ingeniaritza Eskolan egingo den ekitaldian.

Basoen osasuna eta segurtasuna

"Baso osasunaren erronkak eta aurrerapausoak" izenburupean, Egurraren V. Astearen barruan jardunaldi tekniko antolatu du Baskegurrek, ostegunerako, urriaren 24rako, Zamudioko Teknologia Parkean. Elkarteko bertako adituek, baso jabeek eta Neiker eta Hazi bezalako erakunde publikoetako ordezkariak banda marroiari aurre egiteko ekintza ildoetara buruzko daturik berrienak emango dituzte. Larunbatean, hilaren 26an, intsinis pinu (*radiata*) eta beste konifero espezie batzuetako sailetara bisita egingo da, Arratian (Bizkaia), gaitz hori geldiarazteko tratamendua jasotzen ari diren lursailetara.

Etengabeko prestakuntza ere giltzarria da basogintza-egurgintza sektorearen balio kate guztian segurtasuna hobetzeko. Asteko egitarauan sartu dira, halaber, HAZIK emandako ikastaroak, basoko suteen arrazoiak hobeto ezagutzeko eta prebentzio kultura sustatzeko, besteak beste.

Baskegurrek bere baitan biltzen ditu Euskadiko basogintza sektoreko eta egurgintzaren industriako elkarte desberdinak, hala nola: jabeak, baso ustiapen eta lanetakoak, lehenengo eta bigarren eraldaketetakoak eta paper-ore zein bioenergia arloetakoak

Cristina González Barrios.
Baskegurreko prentsa kabinetea
T. 687 47 50 16